

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala****206. zenbakia****Data 2004-10-26****20062 orria****3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK****GFA - FISKALITATEA ETA FINANTZAK****Urriaren 13ko 1125/2004 FORU AGINDUA, N60 eta 060 ereduak eta euskarri magnetikoen diseinu fisikoak eta logikoak onartzen dituen.****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEPARTAMENTUA**

*1.125/2004 FORU AGINDUA, urriaren 13koa, notarioek baimendutako agirien hiruhileko aitortpen informatizatua egiteko N60 ereduak eta notarioek baimendutako agirien hiruhileko aitortpena egiteko 060 ereduak onartu eta euskarri magnetikoaren baldintzak eta diseinu fisiko eta logikoak onesten dituen.*

Maiatzaren 21eko 543/2003 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren notarioek baimendutako agirien hiruhileko aitortpena egiteko 060 ereduak onartu eta euskarri magnetikoaren diseinu fisiko-logikoak.

Bestetik, irailaren 22ko 1.643/2000 Errege Dekretuak, elkargoetako notarioak eta merkataritzako artekariak gorputz bakarrera biltzeko premiazko neurriei buruzkoak, 7. artikuluan jasotzen duenez, hilabete bakoitzaren lehendabiziko hogeitun egunen barruan, notarioek bidali behar dizkiete zuzendaritza batzordeei, Notarioen Erregelamenduak 284. eta 285. artikuluetan jasotako indizeekin batera, euskarri informatikoez edo Notariotzaren Kontseilu Orokorrek eskaintzen duen sare telematikoz, aurreko hilabetean baimendu edo esku hartutako agirien indize informatizatuak.

Era berean, aipatu xedapenak dioenez, notarioen elkargoek bidezko informazioa bidaliko diete legezko arauen bati esker horretarako eskubidea duten herri administrazioei.

Hori horrela, bidezkoa da zabaltzea zerga alorrean garrantzitsua den informazioa igortzeko modua: Gaur egun indarrean dagoen 060 ereduarekin batera, N60 eredu informatizatuaren modalitatea finkatu da.

Hori horrela, hau

XEDATU DUT

*1. artikulua.060 ereduak onartzea.*

Bat. Onarturik geratzen da notarioek baimendutako agirien hiruhilabeteko aitortpena egiteko erabiliko den 060 ereduak. Foru agindu honen I. eranskin gisa ageri da ereduak.

Ereduak bi ale ditu: Bata Administrazioarena eta bestea interesatuarena.

Bi. Aitortpenari, eta euskarri magnetikoan, notarioak baimendutako agiri guztien zerrenda erantsiko zaio.

*2. artikulua.060 ereduaren euskarri magnetikoen diseinu fisiko eta logikoak onartzea.*

Onarturik geratzen dira 060 ereduak aurkezteko erabiliko diren euskarri magnetikoen diseinu fisiko eta logikoak. Foru agindu honen II. eranskin gisa ageri dira diseinuak.

*3. artikulua.N60 ereduak onartzea.*

N60 eredu informatizatua onartu da. Foru agindu honen III. eranskinean deskribatzen da horren diseinua.

#### *4. artikulua.N60 eta 060 ereduak aurkeztera behartuak.*

1.Kontuan hartu gabe lantokia non duten, notarioek konplitu ahal izango dituzte Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko 3/1990 Foru Arauak 32.3 artikuluan eta 18/1987 Foru Arauak 53.2 artikuluan haiei ezarritako informazio betebeharrak, N60 edo 060 ereduetako edozein aurkeztuz.

2.N60 ereduak betetzeko, notarioek baimendutako agiri publikoei buruzko informazioa sartu beharko dute, foru agindu honek 5. artikuluan jasotako irizpideen arabera notarioen organo korporatiboei igorri beharreko indize informatizatuetan, baldin eta agiri horietatik eratortzen badira Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari edo Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari lotutako egintza edo negozio juridikoak.

Notarioen organo korporatiboei, beren plataforma informatikoaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiari emango dizkiote foru agindu honen III. eranskinean deskribatutako diseinu logikoekin batera agiri publiko horien informazioa jasotzen duten fitxategiak.

3.Aurreko apartatuan aipatutako aurkezpen erregimena finkatu da eragotzi gabe notario bakoitzari informazio hori bidaltzeko betebeharra ez konplitzeagatik edo informazioaren zehaztugabetasun edo partzialtasunagatik banaka egotzi beharreko erantzukizuna.

#### *5. artikulua.Euskarrian sartu beharreko informazioa.*

1.N60 eta 060 ereduak informazio hau eduki beharko dute, notarioaren lantokiaren arabera.

a)Lantokia Gipuzkoan duten notarioak direnean, N60 eta 060 ereduetan sartuko dira:

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagokionez: Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari lotuta aurreko hiruhilabetean baimendutako agiri guztien zerrenda, bai eta zergari lotuta egon daitezkeen negozioei buruzko agiri pribatuak ere, baldin eta horren berri eman edo sinadurak legitimatzeko aurkeztu badira, kontuan hartu gabe zein den zerga ordainarazi eta kudeatzeko zerga administrazio eskuduna.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari dagokionez: Zerrenda edo aurkibide horretan ondoko hauek jaso beharko dira: Aurreko hiruhilabetean baimendutako agiriak, bertan jasotzen diren egintza edo kontratuek zerga-gaia eratzen duten ondare gehikuntzak ekarri ditzaketenean, eta eduki hori bera duten agiri pribatuak, aurreko hiruhilabetean notarioek ezagutzeko edo sinadurak legitimatzeko aurkeztu zaizkienean, kontuan hartu gabe zein den zerga ordainarazi eta kudeatzeko zerga administrazio eskuduna.

b)Lantokia Gipuzkoatik kanpo duten notarioak direnean, N60 edo 060 ereduan bakarrik sartuko dira aurreko apartatuan aipatutako agiriak, hain zuzen Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari edo Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari lotuta egon daitezkeen zerga-egitateak dituztenak, Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainarazi eta kudeatzen dituelarik.

2.Ondorengo eskritura publikoak ez dira baimendutako agirien zerrenda edo aurkibidean sartuko:

—Ahalordeak eman eta kentzeko eskritura publikoak.

—Administratzaileak izendatzeko eskritura publikoak.

—Sozietate helbidea aldatzeko eskritura publikoak.

—Azken borondateak aitortzeko edo seme-alaben gurasotasuna adierazteko egintzen eskritura publikoak.

—Ezkontza-itunen eskritura publikoak, ondasunak eskualdatzea edo jada eskuratutako ondasunen estatutu juridikoa aldatzea ez dakartenean.

Notariotza aktei dagokionez, beren edukiagatik Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari zerga egitatea eratu dezaketenean bakarrik sartuko dira.

Notariotzako lekukotasunei dagokienez, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari lotutako gaiak jasotzen dituztenak bakarrik sartuko dira, beti ere ordainketa oharra, salbuespenarena edo zergari ez lotzearena dokumentu horietan ageri ez bada.

Polizei dagokienez, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari lotutako eta salbuetsi gabeko zerga egitateak dituztenak sartuko dira bakarrik.

*6. artikulua.060 eta N60 ereduak aurkezteko epea eta tokia.*

N60 eta 060 ereduak, horien euskarri magnetikoarekin batera, hiruhilabete natural bakoitza amaitu ondorengo hilabetearen barruan aurkeztuko dira, hau da, apiril, uztail, urri eta urtarrilean.

Edozein zerga bulegotan aurkeztu daiteke 060 eredu edo, bestela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskaliterako eta Finantzarako Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan.

N60 eredu telematikoki aurkeztuko da foru agindu honetako 8. artikuluan jasotako prozedurari jarraituz.

*7. artikulua.060 eredu eta euskarri magnetikoa aurkezteko jarraibideak.*

Bat. Euskarri magnetiko guztiak behin-behineko izaeraz jasoko dira beren prozesaketa egin eta egiaztatuak izan arte. Foru agindu honetan ezarritako diseinu eta bestelako berezitasunekin bat ez datorrenean, aitortzaileari hamar laneguneko epea emango zaio aurkeztu duen euskarri magnetikoaren akatsak zuzendu ditzan. Egun horiek igaro eta Zerga Administrazioa ezin bada eskatutako datuetara iritsi funtsezko arazoak oraindik hor daudelako, urteko aitortpena ez aurkeztuzat joko da ondorio guztietarako, eta zergapekoari horren berri emango zaio.

Segurtasun arrazoiak direla-eta, euskarri magnetikoak espreski eskatzen denean baino ez dira itzuliko. Horrelakoetan, edukia ezabatu ondoren itzuliko dira, dela horiek, dela antzeko batzuk.

Bi. Banakako aurkezpena egiten bada, aitortzaileak dokumentu hauek aurkeztuko ditu:

1. 060 ereduaren bi aleak, behar bezala beteak eta izenpetuak. Bertan datu hauek jasoko dira horretarako prestatutako espazioetan: Aitortzen duen notarioaren identifikazio datuak, ekitaldi eta zergaldia, eta aurkezpen mota. Behin zigilatu ondoren, aurkezleari interesatuaren alea emango zaio aitortpena aurkeztu izanaren frogagiri moduan erabiltzeko.

2. Euskarri magnetikoak etiketa bat eraman beharko du itsatsita kanpoaldean, eta bertan ondoko datu hauek adieraziko dira ordena honetan derrigorrez:

—Ekitaldia.

—Zergaldia.

—Aurkezpen eredu: 060.

—Aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

—Aitortzailearen deiturak eta izena.

—Aitortzailearen helbidea, udalerría eta posta kodea.

—Harremanetarako pertsonaren deiturak eta izena.

—Pertsona horren telefonoa eta luzapena.

—Euskarriaren dentsitatea.

Datu horiek adierazteko, nahikoa izango da aurreko zerrendaren arabera bakoitzari dagokion letra aurretik jartzea.

Artxiboak ordenadoren zuzenean irakurriko den euskarri bat baino gehiago duenean, sekuentzialki enumeratutako etiketa bana eramango dute era honetara: 1/n, 2/n, eta «n» euskarrien kopuru osoa izango da. Bigarren eta hurrengo bolumenen

etiketan aski izango da aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazitako datuak jartzea.

Hiru. Euskarri magnetikoak taldekako aurkezpena jasotzen badu, aurkezleak dokumentu hauek bilduko ditu:

1. 060 ereduaren bi aleak, behar bezala beteak eta izenpetuak. Bertan honako datu hauek jasoko dira horretarako prestatutako espazioetan: Aurkezpena egiten duen pertsona edo entitatearen identifikazio datuak, ekitaldia eta zergaldia, aurkezpen mota, aitortzaile kopuru osoa eta zerrendatutako agirien kopuru osoa.

Behin zigilatu eta gero, aurkezleari interesatuaren alea emango zaio aurkeztu izanaren frogagiri bezala erabiltzeko.

2. 060 ereduaren bi aleak, zergadun aitortzaile guztiei dagozkienak, behar bezala beteak eta izenpetuak.

Behin zigilatu eta gero, aurkezleak aitortzaileei dagozkien aitortpenen interesatuaren kopiak gordeko ditu beretzat.

Euskarri magnetikoak etiketa bat eraman beharko du itsatsita kanpoaldean, eta bertan ondoko datuak adieraziko dira ordena honetan derrigorrez:

a)Ekitaldia.

Zergaldia.

b)Aurkezpen eredu. 060.

c)Aurkezlearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ).

d)Aurkezlearen deiturak eta izena edo sozietate izena.

e)Aurkezlearen helbidea, udalerrria eta posta kodea.

f)Harremanetarako pertsonaren deiturak eta izena.

g)Pertsona horren telefonoa eta luzapena.

h)Euskarriaren dentsitatea.

Datu horiek adierazteko, nahikoa izango da aurreko zerrendaren arabera bakoitzari dagokion letra aurretik jartzea.

Artxiboak ordenadoren zuzenean irakurriko den euskarri bat baino gehiago duenean, sekuentzialki enumeratutako etiketa bana eramango dute era honetara: n/1, n/2., eta «n» euskarrien kopuru osoa izango da. Bigarren eta hurrengo bolumenen etiketan aski izango da aurreko a), b), c) eta d) letretan adierazitako datuak jartzea.

*8. artikulua.N60 aitortpena aurkezteko prozedura.*

Bat. N60 eredu modu elektronikoan aurkeztuko da derrigorrez, prozedura honi jarraituz:

a)Notariotzaren organo korporatiboek, beren plataforma informatikoaren bidez, XML fitxategia emango diote Gipuzkoako Foru Aldundiari, aurreko artikuluetatik eratortzen den edukiarekin eta foru agindu honen III. eranskinean jasotako datuekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako segurtasun kodeak erabiliz, notariotzaren organo kolektiboekin adostuta.

b)Aurkezpena errefusatuz gero, Gipuzkoako Foru Aldundiak antzemandako akatsen deskripzioa itzuliko du Notariotzaren Kontseilu Orokorren plataforma informatikora. Hori gertatzen bada, akatsak zuzendu egin beharko dira, eta N60 eredu berriz beteko da hamabost eguneko epean, itzulketa jaso ondorengo egunetik aurrera.

Baldin eta sinadurak aitortu edo legitimatzeko agiri pribatuen zerrenda ez bada aurkezten Notariotzaren plataforma informatikoaren bidez, 060 eredu betez aurkeztuko da.

*Xedapen indargabetzailea.*

Foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak indarrrik gabe geratzen dira eta, bereziki, maiatzaren 21eko 543/2003 Foru Agindua.

*Amaierako xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2004ko urriaren 14a.—Juan Jose Mujika Aginagalde, Departamentuko foru diputatua.

(8243) (9600)

#### I ERANSKINA



#### II. ERANSKINA

### ORDENAGAILUZ ZUZENEAN IRAKURTZEKO EUSKARRIAREN DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK. 060 EREDUA

#### A)EUSKARRI MAGNETIKOEN EZAUGARRIAK

Notarioek baimendutako agirien hiruhileko aitortena aurkezteko erabiliko diren euskarri magnetikoez honako ezaugarriak bete behar dituzte:

—*Zinta magnetikoa:*

Pistak: 9.

Dentsitatea: 1.600 edo 6.250 PBI.

Kodea: EBCDIC, hizki larriz.

Etiketak: Etiketarik gabe.

Markak: Zintaren hasieran eta amaieran.

Erregistroak: 250 posizioakoak.

Blokeo faktorea: 10.

—*Disketeak:*

3 ½"-koa, alde bikoitzekoa. Dentsitate bikoitza (720 KB). Sistema eragilea: MS-DOS eta bateragarriak.

3 ½"-koa, alde bikoitzekoa. Dentsitate handia (1.44 MB). Sistema eragilea: MS-DOS eta bateragarriak.

ASCII kodea hizki larriz, kontrol edo tabulazio karaktererik gabe.

250 posizioko erregistroak.

3 ½"-ko disketeek fitxategi bakar bat eramango dute, NTAAAAP izendatuko dena. AAAA aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak izango dira, eta P hiruhilekoaren zenbakia (1etik 4ra). Fitxategi bakar horrek erregistro mota desberdinak jasoko ditu, B) apartatuan aipatzen den ordenan.

Aitortzailearen ekipoak ez badu jarritako eskakizun teknikoetara egokitzeko gaitasunik, eta hiruhileko aitortpena aukeztera behartuta badago, Zerga Informatikako atalburuarengana jo beharko du. Helbidea: Errotaburu pasealekua 2, 20009 - Donostia. Tf.: 943.483.160, 943.483.161, 943.483.282 Telefaxa: 943.483.293.

## B)DISEINU LOGIKOAK. ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioetatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

1. mota: Aitortzailearen erregistroa. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta eranskinean aurrerago azaltzen dena.

2. mota: Agirien erregistroa. 2. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren arabera izango da. Aitortzailearentzat 1. motako erregistro bakarra egongo da, eta 2. motako erregistroak aitortpenaren sartutako agiriak adinakoak izango dira. Ereku alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerretik hasiko dira betetzen eta eskuinaldetik zurienez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe. Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-I kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letrak 209 ASCII balorea izango du (Hex. D1) eta «Ç» letrak (zedila maiuskulak) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Ereku numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerretik zerez beteak agertuko dira, zehurrik gabe eta enpaketatuta gabe.

Erekuaren azalpenaren bestelakorik esaten ez bada, edukia ereku guztiek izango dute. Edukiri ez badute, bai ereku alfanumerikoetan eta bai alfabetikoetan zuriuneak utziko dira.

Taldeko aurkezpena egiten bada (artxibo berean aitortzaile bat baino gehiago) euskarriaren lehen erregistro moduan zero motako erregistro bat aurkeztuko da, apartatu honen ondoren erregistro mota horretarako deskribatzen dugun diseinuari jarraituz. Horrek aurkezpena egiteaz arduratzen den pertsona edo entitatearen datuak jasoko ditu, eta derrigorrezkoa izango da pertsona edo entitate hori euskarrian aitortzaile bezala ere azaldu arren. Ondoren, lehen aitortzailearen datuak jarriko dira (1. mota), eta bere agiriak gero (2. mota); jarraian, hurrengo aitortzailearen datuak adieraziko dira, eta horrela hurrenez hurren.

## 060 EREDUA

### A. 0 MOTAKO ERREGISTROA: TALDEKAKO AURKEZPENA

(Posizioak, izaera eta eremuen azalpena).

Posizioak: 1.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Erregistro mota.

«0» konstantea (zero)

Posizioak: 2-4.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Aitorpen eredua.

«060» konstantea.

Posizioak: 5-8.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Ekitaldia.

Euskarrian sartutako aitorpenetan aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira.

Posizioak: 9-9.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Zergaldia.

Euskarrian sartutako aitorpenetan aitortzen den hiruhilekoa jarriko da (1etik 4ra).

Posizioak: 10-18.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuen azalpena: Aurkezlearen IFZ.

Aurkezlearen IFZ jarriko da.

Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.

Posizioak: 19-58.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuen azalpena: Aurkezlearen deiturak eta izena edo sozietate izena.

1.motako erregistroan aitortzailearentzat zehaztutako irizpide berberari jarraituz beteko da.

Posizioak: 59-110.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuen azalpena: Aurkezlearen helbidea.

—Eremu hau bederatzitan banatzen da:

Posizioak: 59-60.

Eremuen azalpena: SG. Kalearen siglak.

Posizioak: 61-80.

Eremuen azalpena: Kalea. Kalearen izena. Alfabetikoa izan behar du eta, beraz, izenean zenbakiak dituena letrak erabiliz adieraziko da (adibidez: Maiatzaren 1a, maiatzaren lehena idatziko da). Errepidea izanez gero, km ikurra jarriko da bukaeran.

Posizioak: 81-85.

Eremuen azalpena: Zenbakia. Etxearen zenbakia edo puntu kilometrikoa (dezimalik gabe). Numerikoa izan behar du, eta bost posiziokoa.

Posizioak: 86-87.

Eremuen azalpena: Eskailera.

Posizioak: 88-89.

Eremuen azalpena: Oina.

Posizioak: 90-91.

Eremuen azalpena: Atea.

Posizioak: 92-96.

Eremuen azalpena: Posta kodea. Aurkezlearen helbideari dagokiona. Numerikoa izan behar du, eta bost posiziokoa.

Posizioak: 97-108.

Eremuen azalpena: Udalerria. Hamabi posizio hartzen ditu. Udalerriaren izenak hamabi karaktere baino gehiago baditu, lehen hamabiak jarriko dira, artikulurik eta preposiziorik gabe.

Posizioak: 109-110.

Eremuen azalpena: Probintzia kodea. Aurkezlearen helbideari dagokiona jarriko da. Posta kodearen lehen bi zifrak. Numerikoa.

Posizioak: 111-115.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Aitortzaileak, guztira.

Bost posizioko eremu numerikoa. Euskarri kolektiboan guztira zenbait notario aitortzaile sartu diren adierazi behar da (1. motako erregistro grabatuen kopurua).

Posizioak: 116-124.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Agiriak, guztira.

Bederatzi posizioko eremu numerikoa. Euskarri kolektiboan guztira zenbat agiri zerrendatu diren adieraziko da. Kopuru horrek bat etorri behar du euskarrian sartutako aitortzaileen 1. motako erregistroetan (136tik 144ra arte posizioetan) adierazitako kopuruen baturarekin (2. motako erregistro grabatuen kopurua).

Posizioak: 125.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuen azalpena: Euskarri mota.

Gako hauetako bat jarriko da:

«C»: Informazioa zinta magnetikoan aurkezten bada.



«D»: Informazioa disketean aurkezten bada.

Posizioak: 126-174.

Izaera: Alfanumerikoa.

Eremuen azalpena: Harremanetarako pertsona.

—Eremu hau bitan banatzen da:

Posizioak: 126-134.

Eremuen azalpena: Telefonoa. Bederatzi posizioko eremu numerikoa.

Posizioak: 135-174.

Eremuen azalpena: Deiturak eta izena. 1. motako erregistroan aitortzailearentzat zehaztutako irizpide berberari jarraituz beteko da.

Posizioak: 175-250.

Eremuen azalpena: Zuriuneak.

—Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

—Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak zuriunez beteko dira.

—Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldeetik zeroz beteak agertuko dira.

—Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldeetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldeetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

## B. 1. MOTAKO ERREGISTROA: AITORTZAILEAREN ERREGISTRATUA

(Posizioak, izaera eta eremuen azalpena).

Posizioak: 1.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Erregistro mota.

Konstante zenbakia: «1».

Posizioak: 2-4.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Aitorpen eredu.

«060» konstantea.

Posizioak: 5-8.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Ekitaldia.

Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarri behar dira.

Posizioak: 9-9.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Zergaldia.

Aitortzen den hiruhilekoa jarriko da (1etik 4ra).

Posizioak: 10-18.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuen azalpena: Aitortzailearen IFZ.

Aitortzailearen IFZ jarriko da.

Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zerez beteko dira.

Posizioak: 19-58.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuen azalpena: Aitortzailearen deiturak eta izena.

Lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa jarri behar dira, ordena horretan nahitaez.

Posizioak: 59.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuen azalpena: Euskarri mota.

Gako hauetako bat jarriko da:

«C»: Informazioa zinta magnetikoan aurkezten bada.

«D»: Informazioa disketean aurkezten bada.

Posizioak: 60-108.

Izaera: Alfamerikoa.

Eremuen azalpena: Harremanetarako pertsona.

—Eremu hau bitan banatzen da:

Posizioak: 60-68.

Eremuen azalpena: Telefonoa. Bederatzi posizioko eremu numerikoa.

Posizioak: 69-108.

Eremuen azalpena: Deiturak eta izena. Lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa jarri behar dira, ordena horretan nahitaez.

Posizioak: 109-120.

Eremuen azalpena: Zuriuneak.

Posizioak: 121-122.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuen azalpena: Aitorpen osagarria edo ordezko aitorpena.

Aurkezten dena bigarren edo ondorengo aitorpen bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez:

121: Aitorpen osagarria: «C» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi eta zergaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren eragiketak sartzea bada.

122: Ordezko aitorpena: «S» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi eta zergaldi berberari dagokion aurreko aitorpen bat baliogabetu eta osorik ordezkatzeta bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik baliogabetu dezake.

Posizioak: 123-135.

Eremuen azalpena: Zuriuneak.

Posizioak: 136-144.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Agiri kopurua, guztira.

Euskarrian aitortzaile honentzat guztira zenbat agiri aitortu diren adieraziko da. (2. motako erregistroen kopurua).

Posizioak: 145-250.

Eremuen azalpena: Zuriuneak.

—Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

—Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak zuriunez beteko dira.

—Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz beteak agertuko dira.

—Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

## C. 2. MOTAKO ERREGISTROA: AGIRIEN ERREGISTROA

(Posizioak, izaera eta eremuen azalpena).

Posizioak: 1.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Erregistro mota.

«2» konstantea.

Posizioak: 2-4.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Aitorpen eredu.

«060» konstantea.

Posizioak: 5-8.

Izaera: Numerikoa.

Posizioak: 9-9.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Zergaldia.

Aitortzen den hiruhilekoa jarriko da (1etik 4ra).

Posizioak: 10-18.

Izaera: Numerikoa.

Eremuen azalpena: Protokolo zenbakia. Bi zati ditu:

—Urtea. 4 karaktere numeriko. Bat etorri behar du aitortzen den zerga ekitaldiarekin (erregistro honetako 5-8 posizioak).

—Zenbakia. 5 karaktere numeriko.

Protokolo zenbakia jarriko da eragiketa protokolo zenbaki baten bidez idatzita dagoenean. Beste kode mota batekin idatzita badago, datu hau zeroak jarriz beteko da.

Posizioak: 19-27.

Izaera: Alfanumerikoa.

Eremuen azalpena: Eragiketaren identifikazio kodea.

Eragiketaren identifikazio kodea jarriko da kode hori protokolo zenbaki bat ez denean. Protokolo zenbaki baten bidez identifikatuta badago, datu hau zuriuneak utziz beteko da.

Posizioak: 28-28.

Izaera: Alfanumerikoa.

Eremuen azalpena: Igorpena.

Derrigorrez igorri beharreko eragiketak badira, S balioa adieraziko da. Beste edozein kasutan, N jarriko da.

Posizioak: 29-148.

Izaera: Alfabetikoa.

Eremuen azalpena: Eragiketaren azalpena.

Agiri berean jaso diren eragiketen izena edo izenak adieraziko dira.

Posizioak: 149-250.

Eremuen azalpena: Zuriuneak.

—Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.

—Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak zuriunez beteko dira.

—Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz beteak agertuko dira.

—Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

### III. ERANSKINA

N060 eredu informatizatua fitxategi informatikoaren bidez beteko da, XML formatuan, egitura eta eduki honi egokituta:

Egitura

Goiburua:

<i>Eremua</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Mota</i>	<i>Luz.</i>	<i>L</i>
TIMESTAMP	Timestamping-a mezuaren igorpenaz (formatua: UUUU-HH-EETHh:mm.ss)	Data (ordua)	19	
NÚ_MSJ	Mezuaren identifikazio zenbakia	Numerikoa	Aldakorra	
ID_APL	Aplikazioa deskribatzen du («PLTINDFIS»: indize fiskalak kudeatzeko aplikaziorako kodea)	Alfanumerikoa	9	
FUNCIÓN	Funtzio zenbakia aplikazioaren barruan	Numerikoa	2	
TIPO_MSJ	Mezu mota (Balizko balioak; "1" <i>Request</i> , "2" <i>Reply</i> )	Numerikoa	1	
EMISOR	Mezua igortzen duen entitatea (PLATINO kodea)	Alfanumerikoa		
TIPO_RECEP	Mezua jasotzen duen entitate mota ("3" kodearen balio bakarra: aut. erk.)	Numerikoa	1	
RECEP	Mezua jasotzen duen entitatea (balizko balioak: "01"etik "23"ra, eta Gipuzkoak "20" izango du)	Numerikoa	2	

Datuak

Notarioa

<i>Eremua</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Mota</i>	<i>Luz.</i>
CÓD_NOTARIO	Notariotzaren Kontseilu Orokorrek notario bakoitzari esleitzen dion kode bakarra	Alfanumerikoa	7
TIPO	Nortasunaren agiri mota (balizko balioak: "1" IFZ/IFK; "2" ANZ; "3" pasaporte; "5" beste batzuk)	Alfanumerikoa	1
NUM	Nortasun agiriaren zenbakia	Alfanumerikoa	25

NOMBRE	Notarioaren zenbakia	Alfanumerikoa	40
APELLIDOS	Notarioaren deiturak, edo sozietate izena	Alfanumerikoa	50

## Notariotza

Eremua	Azalpena	Mota	Luz.
CÓD_NOTARÍA	Notariotzaren Kontseilu Orokorrek notariotza bakoitzari esleitzen dion kode bakarra	Alfanumerikoa	9
NOMBRE_NOTARIA	Notariotzaren izena	Alfanumerikoa	32
TIPO_VÍA	Kale mota (Katastroaren Zuzendaritza Orokorren kodeketaren arabera)	Alfanumerikoa	2
VÍA	Kale izena	Alfanumerikoa	25
NÚM_VIA	Kaleko zenbakia	Alfanumerikoa	4
DUPLICADO	Bis edo bikoiztua	Alfanumerikoa	1
BLOQUE	Blokea	Alfanumerikoa	4
ESCALERA	Eskailera	Alfanumerikoa	2
PLANTA	Solairua	Alfanumerikoa	2
PUERTA	Atea	Alfanumerikoa	3
RESTO	Helbidearen gainerako zatia	Alfanumerikoa	25
APROX_KM	Hurbiltasun distantzia kilometrotan	Numerikoa	6,2
PEDANÍA	Entitate txikiaren izena	Alfanumerikoa	15
CÓD_MUN	Udaleriaren kodea (INE)	Numerikoa	4
MUN	Udaleriaren izena (INE)	Alfanumerikoa	25
CÓD_PROV	Probintziaren kodea (INE)	Numerikoa	2
PROV	Probintziaren izena (INE)	Alfanumerikoa	25
DIR_NO_NORM	Arautu gabeko helbidea	Alfanumerikoa	60
CP	Posta kodea	Numerikoa	5
TEL	Notariotzaren telefonoa	Alfanumerikoa	12
FAX	Notariotzaren faxa	Alfanumerikoa	12

## Aurkibidearen identifikatzailea

Eremua	Azalpena	Mota	Luz.
AÑO	Aurkibidearen urtea. Formatua: UUUU	Numerikoa	4
TRIM	Aurkibidearen hiruhilabetea (balizko balioak: "1T" lehen hiruhila, "2T" bigarren hiruhila, "3T" laugarren hiruhila, "4T" bosgarren hiruhila)	Alfanumerikoa	2
MES	Aurkibidearen hilabetea (1etik 12 arteko balioak)	Numerikoa	2
NÚM_DOCS	Aurkibidea blokeko agirien kopuru osoa	Numerikoa	5

## Agiriak

Eremua	Azalpena	Mota	Luz.
NÚM DOC	Erregistro liburuko agiri/protokolo/idazpen zenbakia	Numerikoa	6
NUM_DOC_BIS	Agiriaren bis zenbakia	Numerikoa	3
FECHA_INT	Esku hartze edo baimen data (formatu baliagarria: UUUU-HH-EE)	Alfanumerikoa	10
TIPO	Nortasunaren agiri mota (balizko balioak: "1" IFZ / IFK; "2" atzerritarren nortasun zenbakia; "3" pasaportea; "4" entitate finantzaria; "5" beste batzuk)	Alfanumerikoa	1
NÚM	Nortasun agiriaren zenbakia	Alfanumerikoa	25
NOMBRE	Izena (derrigorrezkoa izango da, pertsona fisikoak direnean)	Alfanumerikoa	40
APELLIDOS	Deiturak edo sozietate izena	Alfanumerikoa	50
	Kale mota (Katastroaren Zuzendaritza Orokorren kodeketaren arabera). Eremu hau ez da beteko,		

TIPO_VÍA	baldin eta arautu gabeko helbide hau jarrita badago: DIR_NO_NORM	Alfanumerikoa	2
VÍA	Kale izena. Eremu hau ez da beteko, baldin eta arautu gabeko helbide hau jarrita badago: DIR_NO_NORM	Alfanumerikoa	25
NÚM_VIA	Kaleko zenbakia. Eremu hau ez da beteko, baldin eta arautu gabeko helbide hau jarrita badago: DIR_NO_NORM	Alfanumerikoa	4
DUPLICADO	Bis edo bikoiztua	Alfanumerikoa	1
BLOQUE	Blokea	Alfanumerikoa	4
ESCALERA	Eskailera	Alfanumerikoa	2
PLANTA	Solairua	Alfanumerikoa	2
PUERTA	Atea	Alfanumerikoa	3
RESTO	Helbidearen gainerako zatia	Alfanumerikoa	25
APROX_KM	Hurbiltasun distantzia kilometrotan	Numerikoa	6,2
PEDANÍA	Entitate txikiaren izena	Alfanumerikoa	15
CÓD_MUN	Udalerrriaren kodea (INE)	Numerikoa	4
MUN	Udalerrriaren izena (INE)	Alfanumerikoa	25
CÓD_PROV	Probintziaren kodea (INE)	Numerikoa	2
PROV	Probintziaren izena (INE)	Alfanumerikoa	25
DIR_NO_NORM	Arautu gabeko helbidea	Alfanumerikoa	60
CÓD_PAÍS	Herrialde kodea, Herrialde eta Lurraldeen Kodeketa Ofizialaren arabera (1999ko abenduaren 29ko Ministerio Agindua; abenduaren 16ko 300 zenbakiko BOE). Espainia denean, ez da zehaztu behar.	Alfanumerikoa	3
PAÍS	Herrialde izena, Herrialde eta Lurraldeen Kodeketa Ofizialaren arabera (1999ko abenduaren 29ko Ministerio Agindua; abenduaren 16ko 300 zenbakiko BOE). Espainia denean, ez da zehaztu behar.	Alfanumerikoa	50
CP	Posta kodea	Numerikoa	5
TEL	Telefono zenbakia	Alfanumerikoa	12
TIPO_INT	Zergari lotutako esku hartze mota (balizko balioak: "1" eroslea/aitortzailea; "2" eskualdatzailea/kausatzaila; "3" mailegu/kreditu emaile; "4" mailegu/kreditu hartzailea; "5" Fidatzailea/abal emaile/hipoteka egilea/pignoratzaila besteren zorreratik; "6" Entitate sortua, aldatua edo iraungia; "7" Sozietate akzio edo partaidetzak eskualdatzen dituen entitate)	Numerikoa	1
REF_CAT*	Erreferentzia katastrala. Erreferentzia katastrala ez bazaio egiaztatu notarioari, bete gabe utziko da eremu hau*	Alfanumerikoa	20

\*Eremu hau betetzen bada, ez da beteko ondorengo VER\_CAT eremua. Bakarrik bi eremu hauetako bat beteko da:

CÓD_PROV	Ondasun higiezinak kokatuta dagoen probintziaren kodea (INE). Bakarrik derrigorrez bete behar da, baldin eta blokea informatzen bada eta REF_CAT eremua bete gabe badago	Numerikoa	2
VER_CAT*	Erreferentzia katastralaren egiazkotasun maila, 13/1996 Legeak jasotakoa betez (balizko balioak: "1" Finka txertatuaren erreferentzia katastrala; "2" Zalantza finka txertatuaren erreferentzia katastrala; "3" Jatorrizko finaren erreferentzia katastrala txertatua (51.5 artikulua); "5" Ez da aurkeztu erreferentzia katastralik)*	Numerikoa	1

\*Eremu hau betetzen bada, ez da beteko ondorengo REF\_CAT eremua. Bakarrik bi eremu hauetako bat beteko da:

CLAVE	Legez informatu behar den eragiketaren gako (Notariotzaren Zuzendaritza Orokorra onartutako eskriturarako eta notario aktetako kode taularen arabera)	Numerikoa	8
CUANTÍA	Eragiketaren zenbatekoa. Agirian ez badago jasota zenbatekoa, bete gabe utziko da eremu hau	Numerikoa	12,2
IMPUESTO	Notarioaren iritiz aplikaziozkoa den zerga (balizko balioak: "1" Eskualdaketa Zerga; "2" Oinordetza Zerga). Uste bada aurreko zerga horietako bati lotu gabe dagoela, bete gabe utziko da eremu hau	Numerikoa	1
CCAA	Autonomia erkidegoa, notarioaren ustez Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga edo Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ordainarazi eta kudeatzeko eskumena duena, lotura puntuaren arabera (balizko balioak: "01"etik "23"ra, eta Gipuzkoak "20" izango du)	Numerikoa	2

1. "Agiriak" ataleko eremu hauek bete behar dira eskrituratan jasotako egintza edo negozioetan dauden esku hartzaile nagusi adina aldiz: «TIPO», «NÚM», «NOMBRE», «APELLIDOS», «TIPO\_VÍA», «VÍA», «NÚM\_VÍA», «DUPLICADO», «BLOQUE», «ESCALERA», «PLANTA», «PUERTA», «APROX\_KM», «PEDANÍA», «CÓD\_MUN», «MUN», «CÓD\_PROV», «PROV», «DIR\_NO\_NORM», «COD\_PAÍS», «PAÍS», «CP», «TEL» eta «TIPO\_INT». Ez dira beteko zerga arloan garrantzirik ez duten esku hartzailei dagokienez (hala nola ordezkariak, lekukoak, peritoak...).

2. "Agiriak" ataleko eremu hauek bete beharko dira higiezinak eskrituretan jasotako egintza edo negozioei lotu adina aldiz: «REF\_CAT», «CÓD\_PROV» eta «VER\_CAT».

3. "Agiriak" ataleko eremu hauek eskritura berean jasota geratzen diren informatu beharreko egintza edo negozio adina aldiz beteko dira: «CLAVE», «CUANTÍA», «IMPUESTO» eta «CAA».